

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD, DEPORTE Y JUVENTUD

DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA, EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Bost urtean zerbitzuen 63 gutun onetsi eta politika publikoen 28 ebaluazio egin dira Nafarroan

*Gaur, NAPIn, "El sistema público de evaluación en Navarra" (Ebaluazioaren sistema publikoa Nafarroan) liburu elektronikoa aurkeztu dute, 2006an abian jarri zenetik arlo horretan egin den lana biltzen duena*

Lunes, 23 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren bidez, "El sistema público de evaluación en Navarra" liburuaz plazaratu du. Liburuak Foru Erkidegoko ebaluazioaren kultura politikoaren ezarpena azaltzen du.

[Formatu elektronikoa argitaratu da](#) liburuaz, eta azken bost urteetan politika publikoen zikloaren fase guztiak ebaluatze aldera sistema publikoa prestatzeko eta zerbitzu publikoen kalitatea sustatzeko Nafarroan jarraitu den prozesua jasotzen du.

Denbora horretan zehar 361 jarduera burutu dira, eta horien % 84 indarrean dira oraindik ere. Horien artean hauek nabarmentzen dira: politika publikoen 28 ebaluazio (gizarte gaiak, enplegua, osasuna, berdintasuna, landa garapena, etab.), 80 ziurtagiri kalitatea kudeatzeko sistemetan, onetsitako zerbitzuen 63 gutun, hobetzeko 10 programa, 55 gogobetetasunaren azterlan eta eskariaren analisi, kexen eta iradokizunen 47 sistema eta lortutako 20 sari eta aintzatespen.

Ebaluazio-sistema horren bidez, hauek dira Nafarroako Gobernuaren helburuak: gastu publikoa gehiago arrazionalizatzea, baliabideen erabilera optimizatzea, zerbitzu publikoak hobetzea, politika publikoek gizartean dauzkaten eraginaren inguruko ezagutza handitzea eta hiritarrei eta kalitate demokratikoari dagokienez kontuak ematea gehitzea,

### EL SISTEMA PÚBLICO DE EVALUACIÓN EN NAVARRA



 Gobierno de Navarra

"El sistema público de evaluación en Navarra" liburuaren azala

gardentasuna eta partaidetza sustatuz.

"El sistema público de evaluación en Navarra" liburua gaur goizean aurkeztu du Félix Taberna NAPIko zuzendari kudeatzaileak. Harekin batera izan dira Tomás Rodríguez NAPIko zuzendari nagusia eta Asun Ruesta Ebaluazio eta Kalitatearen Zerbitzuko zuzendaria. Internet bidez zabaldu da, eta NAPIren [web-orrian](#) zein [Wikipedian](#) dago eskuragarri.

### **"El sistema público de evaluación en Navarra" liburua**

Liburua 94 orrialdek osatzen dute eta, aurkezpenaz, hasierako sarreraz eta eskerrak emateko zatiaz gain, sei atal ditu. Lehenengo zatiak agiriaren helburuak azaltzen ditu, eta bigarrenak Nafarroako ebaluazioaren sistema publikoa zehazten du.

Hirugarrenak, luzeenak, sistema hori Foru Erkidegoan prestatzeko prozesua jasotzen du, bai fase legegilea eta horren aurreko fasea bai jardueren plana zehaztu, horiek ezarri, jarraipena egin eta ebaluatzeko faseak.

Laugarren kapituluak gogoeta egiten da, eta Nafarroan ebaluazioaren sistema publikoak etorkizunean izango dituen erronkak azaltzen dira. Bestalde, azken bi kapituluak bibliografiari eta eranskinei buruzkoak dira.

### **Ebaluazioaren sistema publikoa Nafarroan**

Ebaluazioaren sistema publikoa eratu eta garatzeko prozesua 2006 eta 2010 urteen artean burutu da Foru Erkidegoan politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak eskatzen duena betetzeko.

Legeak ebaluazio-sistemaren oinarritzko elementuek jarraitu beharreko irizpideak eta printzipioak zehazten ditu, eta, hasieratik, prozesuaren buru izateko ardura duen antolatze egitura (politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzen duen Foru Batzordea, NAPIren laguntza eta baliabideak dituen) eta arlo horretan Nafarroako administrazio publikoetan garatzen diren ekintzen inskripzioa arautzen duen jarraipena egiteko tresna bat sortzen ditu (Ebaluazioaren Erregistroa): politika publikoen ebaluazioak, zerbitzuen gutunak, zerbitzu publikoen kalitatea kudeatzeko sistemak, hobetzeko programak, sariak zerbitzu publikoen kalitateari, kexen eta iradokizunen sistemak eta herritarren gogobetetasun-mailaren azterlanak.

2007an, Politika eta Zerbitzu Publikoen Kalitatearen Zerbitzua sortu zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren egituraren barruan. Berriki, 2011ko abuztuan, zerbitzu hori Ebaluazio eta Kalitate Zerbitzu gisa eratu da. Horren egitekoa Foru Batzordeari laguntza eman eta, hortaz, bi erakundeak ebaluazioaren kulturaren bultzatzaile nagusi bihurtu dira Foru Erkidegoan.